

Xedapen Orokorrak

OSASUN SAILA

2853

121/2005 DEKRETUA, maiatzaren 24koa, Osasun Saileko Aholku Batzordeen araubideari buruzkoa.

Osasun arazo beraren aurrean, osasun munduko erabakien eta analisi eta lehen tasunen konplexutasunak, ikuspuntu ezberdinen araberakoak, aterabideak eta inplikaturako sektoreen interesak aztertuko dituen adituen aholkularitza bilatzeko beharra dakar.

Profesional eta Administrazioaren arteko aterabide parte-hartzailearen bilaketa honetan, 2002ko uztailearen 9an Jaurlaritzaren Kontseiluak onetsitako Osasun Plana 2002-2010 planaren garapenerako interes handia du Aholku Batzordeen sorrerak.

Aholku Batzorde hauen helburua Osasun Sailean bi alde batzea ahalbidetuko duen egitura bat sortzea da: batetik, ospe handiko adituen eta elkarte profesionalen ordezkartzaren ekarpenak, eta bestetik, kudeatzaile klinikoak eta osasun-kudeatzaileen esperientzia.

Osasun Plana 2002-2010 planak bere garapenerako osasuneko profesionalak tartean sartzeko beharra ikusten du, Osasun Planean azaldutako zerbitzu klinikoak helburuak bideratze aldera. Elkarlan hau beharrezkoa da prebentzioa, diagnostikoa, tratamendua, errehabilitazioa, informazioa eta ikerketaren maila ezberdinetan, baliabide publikoak ahalik eta modu eraginkorrean erabiltzeko xederako.

Hori guztia dela eta, Osasun sailburuaren proposamenez, eta Jaurlaritzaren Kontseiluak 2005eko maiatzaren 24an egindako bilkuran aztertu eta onartu ondoren, hauxe

XEDATU DUT:

1. artikulua.— Helburua.

Dekretu honen bidez Aholku Batzordeei aplikatuko zaien araubidea ezartzen da, izaera aholku-emailea duena, Osasun sailburuak Euskadiko Osasun Plana 2002-2010 planaren barnean dauden lehen tasuneko osasun jarduera-esparruentzat sortu duena.

2. artikulua.— Aholku Batzordeen funtzioak.

Aholku Batzordeen funtzio nagusiak honakoak izango dira:

Disposiciones Generales

DEPARTAMENTO DE SANIDAD

2853

DECRETO 121/2005, de 24 de mayo, sobre el régimen de los Consejos Asesores del Departamento de Sanidad.

La complejidad de las decisiones en el mundo sanitario y los distintos análisis y prioridades que, desde posiciones diferentes, pueden realizarse sobre un mismo problema de salud, recomienda la necesidad de buscar un asesoramiento experto que pondere las diferentes alternativas de solución y los intereses de los distintos sectores implicados.

En esta búsqueda de soluciones participadas entre profesionales y Administración, se considera de gran interés la creación de Consejos Asesores para el desarrollo del Plan de Salud 2002-2010, aprobado por el Consejo de Gobierno el 9 de julio de 2002.

El fin de estos Consejos Asesores es dotar al Departamento de Sanidad de una estructura que permita aunar, por un lado, las aportaciones de expertos de reconocido prestigio y de la representatividad de sus asociaciones profesionales y, por otro, la experiencia de gestores clínicos y sanitarios.

En este sentido el Plan de Salud 2002-2010 reconoce para su desarrollo la necesidad de involucrar a los profesionales sanitarios en la orientación de los servicios clínicos hacia los objetivos expuestos en el Plan de Salud. Esta colaboración es necesaria en las diferentes dimensiones de prevención, diagnóstico, tratamiento, rehabilitación, información e investigación y todo ello bajo el prisma del uso más eficiente de los recursos públicos.

Por todo lo cual, a propuesta del Consejero de Sanidad, previa deliberación y aprobación por el Consejo de Gobierno, en su sesión del día 24 de mayo de 2005,

DISPONGO:

Artículo 1.— Objeto.

Mediante el presente Decreto se establece el régimen que será de aplicación a los Consejos Asesores que, con carácter consultivo, cree el Consejero de Sanidad para aquellas áreas de actuación sanitaria prioritaria reconocidas en el marco del Plan de Salud de Euskadi 2002-2010.

Artículo 2.— Funciones de los Consejos Asesores.

Serán funciones principales de los Consejos Asesores:

a) Osasun Sailarentzat interesgarri diren eta Osasun Planaren garapen eragingarria errazten duten helburuekin, estrategiekin, programekin eta jarduerekin zerikusia duten gaien berri ematea.

b) Osasuneko kasuan kasuko berriazko arloan esku-hartze programen lanketan proposamenak egin eta, hala behar bada, Osasun Sailarekin elkarlanean aritu.

c) Osasun Sailak osasun programei eta prozesu asistentzialei buruz egiten dituen ebaluazioen emaitzen berri eman, egoki ikusten diren eguneratze eta hobekuntza proposamenak formulatuz.

d) Jardunean dauden edo etorkizunerako aurreikusten diren ikerketa lerroen berri eman, baita bere esku-hartze-eremuari dagozkion gaixotasunen diagnostikoan eta tratamenduan indar hartzen ari diren teknologien existentziaren berri ere.

3. artikulua.— Osasuneko esku-hartze programak.

1.— Osasuneko esku-hartze programak ondoko puntu hauei buruzkoak izango dira:

a) Osasun Planaren helburu orokorren eta berriazkoen garapena, kasuan kasuko arlo espezifikoa dagoena.

b) Osasun Planean dauden eta kasuan kasuko arlo espezifikoa dagozkion estrategien garapena, populazioa jarduerara eta betetzeak proposatuz.

c) Zerbitzuen beharren eta baliabideen identifikazioa osasun helburu operatiboak proposatuz, kasuan kasuko osasun arazoaren egitura-kalitatea, prozesua, antolaketak eta emaitzaren adierazle direnak.

d) Ikerketa eta ebaluazioak proposatu, kasuan kasuko arlo espezifikoa egoera hobeto ezagutzeko, izan dadin Autonomia Elkartearen, Lurralde Historikoa, udalerriaren edo osasun zerbitzuen antolakuntzan.

2.— Osasun sailburuordeak onetsiko ditu osasun esku-hartze programak.

4. artikulua.— Araubide juridikoa.

Aholku Batzordeak barne araudiaren arabera eraenduko dira, Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen azaroaren 26ko 30/1992 Legearen II. tituluaren II. kapituluaren oinarriko gisa xedatutakoaren aplikazioa kaltetu gabe.

5. artikulua.— Aholku Batzordeen osaketa.

1.— Aholku Batzordea lehendakariak, idazkariak eta gehienez 18 kidek osatuko dute.

2.— Aholku Batzordeen osakeran zientzia-elkarteen eta osasunaren zientzietako espezialitateetako profesionalen ordezkariak, Osakidetza-Euskal Osasun Zerbitzuko osasun zerbitzuetako ordezkariak eta Osasun Saileko ordezkariak egongo dira.

a) Informar sobre todos aquellos temas de interés para el Departamento de Sanidad y que guarden relación con los objetivos, estrategias, programas y acciones que faciliten el desarrollo operativo del Plan de Salud.

b) Proponer y, en su caso, colaborar con el Departamento de Sanidad en la elaboración de programas de intervención sanitaria del área específica de que se trate.

c) Informar acerca de los resultados de las evaluaciones que el Departamento de Sanidad realice sobre los programas sanitarios y sobre los procesos asistenciales, formulando las propuestas de actualización y mejora que se estimen pertinentes.

d) Informar sobre las líneas de investigación en curso o que se prevean en un futuro, así como informar de la existencia de tecnologías emergentes en diagnóstico y tratamiento de enfermedades que correspondan a su área de intervención.

Artículo 3.— Programas de intervención sanitaria.

1.— Los programas de intervención sanitaria tratarán sobre los siguientes puntos:

a) Desarrollo de los objetivos generales y específicos del Plan de Salud que correspondan con el área específica que se trate.

b) Desarrollo de las estrategias contempladas en el Plan de Salud que correspondan con el área específica que se trate proponiendo acciones y cobertura poblacionales.

c) Identificación de necesidades de servicios y recursos proponiendo objetivos operativos de salud, indicadores de calidad de estructura, proceso, organización y resultado para el problema de salud que se trate.

d) Proponer estudios y evaluaciones para un mejor conocimiento de la situación ya sea a nivel de Comunidad Autónoma, Territorio Histórico, municipio u organización de servicios sanitarios en relación con el área específica que se trate.

2.— Corresponde la aprobación de programas de intervención sanitaria al Viceconsejero de Sanidad.

Artículo 4.— Régimen Jurídico.

Los Consejos Asesores se regirán por su propia reglamentación interna, sin perjuicio de la aplicación de lo dispuesto con carácter básico en el Capítulo II del Título II de la Ley 30/1992, de 26 de noviembre, de Régimen Jurídico de las Administraciones Públicas y del Procedimiento Administrativo Común.

Artículo 5.— Composición de los Consejos Asesores.

1.— Los Consejos Asesores estarán compuestos por un Presidente, un Secretario y hasta un máximo de 18 vocales.

2.— En la composición de los Consejos Asesores deberán figurar representantes de las sociedades científicas y profesionales de diferentes especialidades en ciencias de la salud, representantes de los servicios sanitarios de Osakidetza-Servicio vasco de salud y representantes del Departamento de Sanidad.

3.– Aholku Batzorde bakoitzak erabakiko du, aztertu beharreko gaietan ospe handia duten eta beren ekarpenak interesgarritzat jotzen diren beste pertsona batzuk, egingo diren bileretara etorri eta beren jardueren garapenean kolaboratu ahal izatea.

4.– Aholku Batzordeek beren esparruko arloen eta gaien ikerketa eta trataera espezifikorako lan-taldeak eratu ahal izango dituzte.

6. artikulua.– Izendapena.

1.– Aholku Batzordeen lehendakaria, idazkaria eta kideen izendapena Osasun sailburuak egingo du. Izendapenen iraupena bi urtekoa izango da, berriz hautatuak izan daitezkeelarik.

2.– 5.3 artikuluan aipatzen den kolaboratzaileen izendapena Osasun sailburuordeak egingo du dagokion Aholku Batzordeak proposatutakoa aintzat hartuta.

7. artikulua.– Kalte-ordainak.

Aholku Batzordeetan parte-hartzeak eta 5.3 artikuluan aipatzen den kolaborazio-jardueren garapenak ez dute ordainsaririk izango, otsailaren 2ko 16/1993 Dekretuan, zerbitzuagatik kalte-ordainei eta gainontzeko arau osagarri eta garapenari buruzkoa, aurreikusitako kopuruetan dieta edo kalte-ordainak jasotzea kaltetu gabe.

8. artikulua.– Administrazio-laguntza.

Aholku Batzordeen funtzionamendurako beharrezkoa den administrazio-laguntza Osasun Sailak eta Osakidetza-Euskal Osasun Zerbitzu publikoak emango du.

XEDAPEN GEHIGARRIA

Lehentasunezko osasun jarduera esparrutzat hartzen dira:

- a) Minbizia.
- b) Zirkulazio-aparatuko gaixotasunak.
- c) Diabetes mellitua.
- d) Osasun mentala.
- e) Txertaketaren bidez saihestu daitezkeen gaixotasunak.
- f) GIB-HIESa eta bestelako STGak.
- g) Osasun sailburuaren iritziz egungo edo etorkizuneko osasun arazoekin zerikusia duten gaixotasunak.

XEDAPEN INDARGABETZAILEA

Ondorengo xedapenok indargabeturik geratuko dira:

- a) 240/1993 Dekretua, abuztuaren 3koa, Osasun Sailko Kontseilu Aholkuemaleen araubideari buruzkoa.

3.– A criterio de cada Consejo Asesor, podrán acudir a las reuniones que se celebren y colaborar en el desarrollo de sus actividades otras personas de reconocida competencia en los temas a tratar y cuyas aportaciones sean consideradas de interés.

4.– Los Consejos Asesores podrán constituir grupos de trabajo para el estudio y tratamiento específico de áreas y materias de su competencia.

Artículo 6.– Nombramiento.

1.– La designación del Presidente, del Secretario y de los miembros de los Consejos Asesores se realizará por el Consejero de Sanidad. La duración de los nombramientos será de dos años, pudiendo ser reelegidos.

2.– La designación de los colaboradores que se refiere en el artículo 5.3 se realizará por el Viceconsejero de Sanidad a propuesta del Consejo Asesor correspondiente.

Artículo 7.– Indemnizaciones.

La pertenencia a los Consejos Asesores y el desarrollo de actividades de colaboración a que se refiere el artículo 5.3 no dará lugar a retribución alguna, sin perjuicio de la percepción de las dietas o indemnizaciones en las cuantías previstas en el Decreto 16/1993, de 2 de febrero sobre indemnizaciones por razón de servicio y demás normativa complementaria y de desarrollo.

Artículo 8.– Apoyo administrativo.

El apoyo administrativo necesario para el funcionamiento de los Consejos Asesores será provisto por el Departamento de Sanidad y el Ente Público Osakidetza-Servicio vasco de salud.

DISPOSICIÓN ADICIONAL

Se declaran como áreas de actuación sanitaria prioritaria:

- a) El cáncer.
- b) Las enfermedades del aparato circulatorio.
- c) La diabetes mellitus.
- d) La salud mental.
- e) Las enfermedades prevenibles por vacunación.
- f) El VIH-SIDA y otras ETS.
- g) Aquellas otras que el Consejero de Sanidad considere oportunas en relación con otros problemas de salud presentes o futuros.

DISPOSICIÓN DEROGATORIA

Quedan derogadas las siguientes disposiciones:

- a) Decreto 240/1993, de 3 de agosto, sobre el régimen de los Consejos Asesores del Departamento de Sanidad.

b) 170/1993 Dekretua, ekainaren 15ekoa, Minbiziari buruzko Euskadiko Kontseilu Aholkuemailea eratzeko dena.

c) 1987ko urriaren 1eko Agindua, Osasun eta Kontsumo Sailaren Euskal Autonomia Elkartean dauden Gogo-Osasunerako Zerbitzuen Erreformarako Batzordea osatuz.

d) 1991ko ekainaren 4ko Agindua, Osasun Sailburuarena, Txertaketetarako Euskadiko Aholku Batzordea sortzeko dena.

e) 1991ko abuztuaren 30eko Agindua, Osasun sailburuarena, Euskadiko Osasun Informazio Sistemiei buruzko Batzorde Aholkularia sortzen duena.

f) 1992ko urriaren 6ko Agindua, Osasun Sailburuaren, HIESari Aurrehartzeko eta hori Kontrolatzeko Egitasmoaren Aholku-batzordeen osakera eta egitekoak zehazten dituena.

g) 1993ko ekainaren 17ko Agindua, Osasun Sailburuarena, Minbiziari buruzko Euskadiko Kontseilu Aholkuemailea sortzeko zen 170/1993 Dekretua gartzeko dena.

h) 1993ko azaroaren 3ko Agindua, Osasun Sailburuarena, Bihotz eta Odol-basoetako Gaisotasunei buruzko Euskadiko Kontseilu Aholkuemailea eratzeko dena.

i) 1994ko martxoaren 8ko Agindua, Osasun sailburuarena, Diabeteari buruzko Euskadiko Kontseilu Aholkuemailea eratzeko dena.

j) 1994ko martxoaren 29ko Agindua, Osasun sailburuarena, Berezko eta Perinatal mailako Gaisotasunen Euskadiko Kontseilu Aholkuemailea sortzen duena.

AZKEN XEDAPENA

Dekretu hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunean jarriko da indarrean.

Vitoria-Gasteizen, 2005eko maiatzaren 24an.

Lehendakaria,

JUAN JOSÉ IBARRETXE MARKUARTU.

Osasun sailburua,
GABRIEL M.ª INCLÁN IRÍBAR.

b) Decreto 170/1993, de 15 de junio, por el que se crea el Consejo Asesor sobre el Cáncer de Euskadi.

c) Orden de 1 de octubre de 1987, del Departamento de Sanidad y Consumo, por la que se crea la Comisión para la reforma de los servicios de salud mental de la Comunidad Autónoma Vasca.

d) Orden de 4 de junio de 1991, del Consejero de Sanidad, por el que se crea el Comité Asesor de Vacunaciones de Euskadi.

e) Orden de 30 de agosto de 1991, del Consejero de Sanidad, por la que se crea el Comité Asesor sobre Sistemas de Información Sanitaria de Euskadi.

f) Orden de 6 de octubre de 1992, del Consejero de Sanidad, por el que se determina la composición y funciones de las Comisiones Asesoras del Plan para la prevención y control del SIDA.

g) Orden de 17 de junio de 1993, del Consejero de Sanidad, de desarrollo del Decreto 170/1993, por el que se crea el Consejo Asesor del Cáncer de Euskadi.

h) Orden de 3 de noviembre de 1993, del Consejero de Sanidad, por la que se crea el Consejo Asesor sobre las Enfermedades Cardiovasculares en Euskadi.

i) Orden de 8 de marzo de 1994, del Consejero de Sanidad, por la que se crea el Consejo Asesor sobre Diabetes en Euskadi.

j) Orden de 29 de marzo de 1994, del Consejero de Sanidad, por la que se crea el Consejo Asesor sobre las Anomalías Congénitas y Enfermedades perinatales en Euskadi.

DISPOSICIÓN FINAL

El presente Decreto entrará en vigor el día siguiente al de su publicación en el Boletín Oficial del País Vasco.

Dado en Vitoria-Gasteiz, a 24 de mayo de 2005.

El Lehendakari,

JUAN JOSÉ IBARRETXE MARKUARTU.

El Consejero de Sanidad,
GABRIEL M.ª INCLÁN IRÍBAR.